

Astekaria

# BARREN elgoi

## Udaberri giroan



**garajea**

**ASTIGARRAGA**

San Frantzisko, 53. Tel. 74 01 86


- ✘ Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
- ✘ Motoserrak
- ✘ Desbrozadorak
- ✘ Neumatikoak
- ✘ Bizikletak







PVC, ALUMINIO eta POLIURETANO AROZTEGIA



## LEIHO ISOLATZAILEAK

"EGUNEZ EGUN ZUGANDIK HURBILAGO"

- \* Lehenengoak merkatuan.
- \* Geuk egindakoak.
- \* Kalitate eta prezioaren arteko oreka.
- \* Diseinu bakarra eta berria.
- \* Europar teknologia goren.
- \* Azkarrak eta profesionalak.
- \* 10 urteko garantia idatziz.

Aurrez ezazu energia,  
hobetu zure bizitza kalitatea,  
eman lasaitasuna eta itxura  
ona zure etxe bizitzari.  
Azken batean,

*"Aukera ezazu onena"*



**SOLUZIORIK ONENA!**



**INAUGURAZIOA**  
Ostiralean, hilak 25  
betatik 8etara

Gaurtik aurrera  Elgoibarren  
Santa Ana 28an (Sigmako zubian)

 **74 43 83**



### elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

#### ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra

#### LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala

#### ZUZENDARIA:

Alberto Agirreazaldegia

#### HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu

#### ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Iñaki Arrieta, Antton Bergara,

Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,

Jose Inazio Sarasua

#### KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso

Jasone Osoro

#### MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria

#### PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz

#### ADMINISTRATZIOA:

Josune Fernandez,

M. Angeles Ortuoste

#### KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Itziar Agirregomezkorta, Ana Aizpiri, Myriam Aldazabal, Isabel Ansola, Nere Arostegi, Gotzon Arrieta, Pello Arrieta, Belen Arrizabalaga, Ainara Burgaina, Urtzi Etxabe, Asier Etxaniz, Sugar Etxaniz, Felix Etxeberria, Enez Ezenarro, Itziar Fernandez, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Gotzon Garate, Amaia Gorostiza, Alfonso Guillo, Maite Iriondo, Ekaitz Isasi, KOKOE, Enrike Larrañaga, Imanol Larrañaga, Haritz Leon, Jesus Mari Makazaga, Aitor Maya, Iñaki Odriozola, Ixa Sanchez, Eduardo Sanz, Jose Inazio Sarasua, Ohiana Tarragual, Alain Ulazia, Olga Unzilla, Igor Vazquez, Ana Vila, Miryam Villasante, Alaitz Vives, Aitor Zabaleta, Yulen Zabaleta.

#### BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

#### INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.300 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## Ezkerra eta eskuina

**B**adut lagun bat esaten duena ezkerra eta eskuinaren arteko desberdintasuna, dagoeneko, estetiko basterik ez dela. Izan ere, telebista eta komunikabide ofizialetan ikusten-erakusten digutenaren arabera batzuk eta besteak bereiztea zaila zaigun arren, ez dut uste hori horrela denik, nahiz eta norbaiti benetan komeni zaion ideia izan. Esan behar, sakoneko edukinaren desberdintasunak, niri behintzat argi azaltzen zaizkidala, baina horretan sartzeko asmorik (lekurik, gogorik...) ez dudanez, egia da, egon, badagoela desberdintasun estetikorik, itxurarena alegia, bien artean.

Gure gizarte modernoaren sorreran, orain dela bost mende inguru, antolaketa estamental deritzona zegoen, zeinetan Jauntxoak eta bere senitarteak lurralde osoaren jabe ziren, bertan bizi ziren gauza, animalia eta gizakiak barne. Guri dagokigunean, han bizi ziren gizaki guztiak zerbitzariak ziren, hau da, literalki hartuz, nagusiaren menpekoak ziren, honen lur-ondasun (gizakiak ezin zuen bere lurretatik irten) edo antzeko propietate bailiran. Jauntxo hau, bera zen legegile, lege horien betetzale eta epaile, eta normalean, bera zen, gainera, inguruko aberats bakarra (eta izatez, gaur egungo edozein burges-txikiren aldean behartsua zen, bere aberastasuna lurrari lotua baitzegoen, eta ez diruari).

Jauntxo eta Agintari ziren hauei, asko gustatzen zitzairen beraien

menpekoengandik gorespenak edo alabantzak jasotzea eta gainera, nolabait, goraipamen hauek bidezkoak zirela pentsatzea ez da, ez, beste munduko gauza. Azken batez, eskolaren bat egiten bazuen, zerbitzariarentzat izanik ere, bere diruarekin egina zen, ikuskizun bat antolatzen zuenean bere diruaz eta bere herriko plazan egiten zen, bideren bat hobetzen zuenean berak ematen zien jaten langileei eta berak harriak erosi, eliza eraikitzeke ere berak jartzen zituen arbasoen kutxatik ateratako bitxiak eta... guzti hau egiteko zergak jaso behar bazituen ere, azken batez, berari zegokion ondasuna zen, bere lurrean baitzegoen.

Joan zen egunean urteroko krosera joan nintzenean, nire gainean jartoki guzti haiek ikusterakoan, erdi-erdian kolore desberdinetako aulkiak (hesi sinbolikoa) atzeman nituenean, bururatu zitzaidan, bada, Jauntxo haien ondorengoak ba ote geneuzkan, oraindik ere, gure herrian. Eta halaxe. Beno, onartu behar, oraingo Eskuindarrek, eta ongi dago jakitea, beraien burua ez dutela Agintaritzat soilik, AGINKARITzat baizik (eta hau ez dut nik asmatu bertan jartzen baitzuen), eta orduan Hiritarro, geure burua ere, beraien hortzakaden arriskupean gelditzen zaigu. Bada, kontuz! Lehengoak, gutxienez, begibistan bazegoen ere, ez ziren esatera ausartzen eta.

Iñaki Odriozola Sustaeta

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*







## KEXAK

Ezindu fisiko bat etorri zaigu lokalera eta Maalako komunek gutxitu fisikoentzat eskaintzen duten egoera kaxkarra salatu nahi du. Besteak beste, honako kexak zerrendatu dizkigu: komunecan ez omen dago gurpildun silla lagatzeko tokirik, ezkerriak direnentzat bakarrik prestatuta omen dago eta komunetako sarrerako ranpak inklinazio edo aldapa handiegia dauka.



## TXALOAK

Irakurle batek deitu digu eta Udaltzaingoa txalotu nahi duela adierazi digu. Larunbat arratsaldean herriko hainbat puntutan egoten omen dira jendeak kale bazterretan pixa egin ez dezan eta komunetarako bidea erakusten. Igande goizetan bestelako usaia egoten omen da orain.

## OHARRA:

**Aste Santuko oporrak direla eta, datorren astean, apirilak 1, ez da alerik egongo.**

# ESKUTITZAK

## Futbitoko antolatzaileen kexari erantzunez

**B**ARRENen azken alean jaso zenuten kexari erantzun nahi lioke martxoaren 13an Udaltzaingoa arduradun gisa zegoenak.

Futbitoko txapelketan parte hartzen duten askok Kalamua kaleko kurba osoa hartuta zuten aparkatutako beren autoekin, alde bietan pasua guztiz estutzen zutelarik eta, inongo bisibilitaterik laga gabe bertatik pasa zitekeenari. Seinaleak nahikoa ez balira, lurrean margotu berria da marra hori bat, bertan aparkatzeko debekua argi azalduz, baina konponbidearen bila zera eskatu nahi genieke gidariei:

- Saia daitezela bakoitza ibilgailu batean ez joaten.
- Badituztela aparkalekuak, bai Galiza plazan eta baita jokutzen duten patioaren goiko aldeko aparkalekuan ere, bertatik zuzenean jeisteko eskilarak dituztelarik. Beraz, dagoen lekua aprobeitza dezatela.
- Seinaleak eta oinezko zein beste gidarien eskubideak errespetatu dituzatela.

Jose Antonio Iñurrieta  
Udaltzaingoko kaboa

## Euskara ordenantzak

**E**uskararen udal Ordenantzen gaia bukaerarik gabeko gaia bihurtzen ari zaigu. Irakurle batzuek agian informazio piska bat izango duzue gai honen inguruan. Legealdia hasi berri ekin zion Euskara Batzordeak eztabaidari. Eztabaida bukatutakoan PSOEk erreklamazio orokor bat jarri zion ordenantzen txostenari.

Gaia, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzara (HPIN) eramán zen. Han ia urtebete egin zuen eta HPINek emendakin batzuk aurkeztu zituen, txostenak jaso zitzan. Euskara Batzordeak emendakinak aztertu zituen, gehienak onartzuz. Baina hara non, PSOEk, Eusko Jaurlaritzako partaideak, berriro ere, emendakinak aurkeztu dituen (16 emendakin gutxi gora behera).

Badira bi urte t' erdi Euskara Batzordeak eztabaida honi hasera eman ziola. Herri Batasunatik pentsatzen dugu nahikoa denbora pasa dela, gehiegi agian, gai honi bukaera emateko. Gure aldetik malgutasuna erakutsi dugu metoduari zein edukinei dagokienean. Baina ez gaude gai hau "per secula seculorum" luzatzeko prest.

PNVri dagokio orain egoera irregular honi irteera ematea eta, ordenantzen eztabaidari, behingoz, irteera bizkorra ematea.

Pedro Mendizabal  
HBko Euskara Zinegotzia

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK







AZKUE

**A**ste honetako erretratua Lidia Iriartek lagatakoa da. Berau 1968. urtean "Txarriduna" jatetxean ateratako omen da. Lidiak esan digunez, horrenbeste emakumezko mahai baten bueltan biltzearen arrazoia, ezkontza despedida izan zen. Ana Maria Buenoren ezkontza despedidara joandako emakume kuadrila omen da goi aldean daukaguna. Emakumeak eleganteak badira ere, mahaiak ez du batere aitzakiarik; hiruna plater, bina edalontzi (kolore diferente eta guzti) eta jateko fina. Despedidak horrelakoak izaten baziren, nolakoak izango ote ziren

ezkontza jatorduak!

Ikus dezagun zeintzuk diren erretratukoak:

Tente, ezkerretik hasita: Victoria Arizmendiarrrieta, Pepita Odriozola, Begoña Arrieta, Maritxu Arakistain, Mari Jose Arrieta, Marisol Odria, Etxaniz, Pakita Astigarraga, Julita Unzueta, Teresa Aginaga, Felisa Arriaga, Angela Aizpitarate eta Mertxe Etxeberria.

Jarrita: Rosario Aguayo, Virtudes Marmol, Nico, Lidia Iriarte, Juani Bueno, Ana Mari Bueno, Mari Karmen Arriola eta Maria Luisa Arriola.

Ondo begiratu, denak elgoibartarrak dira eta!

## HERRI-GAIN ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4 (☎ 74 30 40) ELGOIBAR

### GARAY

**HARATEGIA  
URDAITEGIA**

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

### IDARRAGA

KAFEAK


**Eguneroko errealdia**

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39



# Udaberria, aldaketa garaia

**Astelehenean, hilak 21, goizeko 11,29tan ofizialki udaberrian sartu ginen. Eguzkiak kaskarrak berotzen ditu, eguna luzatu egiten da, odola ere epeldu egiten da... gauza asko gertatu ohi dira udaberrian. Gaztelerazko "la primavera la sangre altera" esaerak zientifikoki inolako arrazoi edo justifikaziorik ez duen arren, egia da udaberriaren etorrerak eragina izaten duela osasunean eta pertsonen animoan ere. Zergatik gertatzen den, inork ez daki ziur, baina zerbait bada...**



■ ■ Eguraldi onarekin arropak arin eta gorputzek sendo egon behar dute.

**G**izakiari, inguruan gertatzen diren aldaketek eragiten diote, aldaketa klimatikoek ere, noski. Neguko hotzak alde batera lagata, tenperaturaren igoera, argitasuna eta loratzea gertatzen dira udaberrian. Gizakiaren jarreraren eragina duten hiru faktore dira eta, eragina dute gizakiaren dietan, janzkeran edota aisialdian. Garai honetan, zenbait fenomeno gertatzen dira: alergiak, azaleko tumoreak eta buruko desorekak.

## Tenporak

Urtaro aldaketak gertatzean, bada euskaldunon artean eta baserritarren artean batez ere, onarpen

eta sinismen handiko predikzio sistema bat: tenporak, alegia. Egun horietan egiten duen eguraldia urtaro guztian egingo duena izango dela esan ohi da. Garai batean eliza katolikoak otoitz egiteko ezartzen zituen urtaro haserako lehen hiru egunak ziren tenporak. Denboraren poderioz, esanahi erlijioso hori galdu egin da.

Udaberriko tenporak otsailaren 23an, 24an eta 25ean izan ziren eta egun horietako eguraldiaren arabera, udaberri epela

edukiko omen dugu. Arantzazuko metereologia estazioko arduradun eta tenporetan jakitun den Pello Zabalak, hiru egun horietan hego haizea nagusi izan zela adierazi du eta, beraz, udaberria epel xamarra izango dela. Dena den, udaberriko eguraldia aldakorra izan ohi da beti, eta ez dugu ahaztu behar apirila, adibidez, hilabete oso euritsu dela. Beraz, eguraldi ona bai, baina euria ere izan dezakegu.

## Kirola eta dietak

Tradizionalki, udaberriaren etorrerarekin, gimnasioak jendez eta, batez ere, emakumez bete ohi dira. Dietak ugaritu egiten dira gorputz perfektorekin bila dabilen biztanleriaren artean. Hauexek izango dira seguraski eguraldi onaren eraginez gertatzen diren jarrera aldaketa sozial garrantzitsuenak. Dena den, duela urte batzuetako ohiturekin konparatuz, zerbait aldatzen ari dela dirudi. Moda berriekin bat, gorputz osasuntsuak nagusi diren modarekin bat, osasuna edertasunari gailentzen ari zaiola dirudi. Kirolari dagokionean behintzat, jendea urte osoan zehar joaten da gimnasioetara, garai honetan jende gehia-

**"Garai honetakoak dira depresioak; egia da ugaritu egiten direla"**



# Alergiak: Udaberriko gaitza?

Javier Agirrebeña, medikua.

- **Alergia, udaberriko gaisotasun tipikoa al da?** - Denetarik dago. Badira batzuk urtaro jakin batekoak direnak, polenari alergia adibidez, eta, badira beste batzuk urte osoan ager daitezkenak, etxeko hautsari alergia, artileari,...

- **Polenarena, beraz, udaberriko alergia da, ez?**

- "Fiebre del heno" ere deitzen da. Haseran begietan konjuntibitis antzeko bat sortzen da, gero doministikuak agertzen dira, eta fase gogorrago batean asma ere bai.

- **Zergatik gertatzen dira alegiak?** - Gorputz batek zerbaitekiko sensibilizazioa duelako gertatzen dira. Polenaren kasuan, udaberrian loreek hauts horixka botatzen dute. Gorputz batzuk sustantzia horrekiko sensibilizatuta daude eta normala ez den erreakzioa izaten dute. Giza gorputzaren defentsa bat da, arra-

roa zaion zerbaiten aurrean. Haseran, lehen kontaktua izatean ez da ezer gertatzen baina bigarren urtean edo, gorputza sensibilizatuta dagoenean, estaminak erantzun bat izaten du, eta ondorioz, lehen aipatutako sintomak agertzen dira.

- **Zein neurri hartu beharko lituzke alergiak dituen batek?** - Ezin da aparteko neurririk hartu, bakar bakarrik kontutan izan dezatela alergikoak direla eta sintoma horiek edukiko dituztela. Polena hor dago eta ezin dugu ebitatu beronek eragina izatea. Sintomak agertzen direnean antiestaminikoak har ditzatela.


- **Alergiak senda al daitezke?** - Lor daiteke desensibilizazioa. Gertatzen dena da tratamendua oso luzea dela eta, jendea nekatu egiten da. Polenaren kasuan ez, baina etxeko hautsaren kasuan bakuna edo txerto ezagu-

nak daude. Urte askotan hartu behar izaten dira, eta gehienek laga egiten dituzte. Batzuek pentsatzen dute gaisotasuna kontrolpean dutela sintomak desagertu direlako, baina gaisotasuna hor dago.

- **Udaberrian depresioak, buruko desorekak ere, agertzen dira.**

- Esaera zaharrek beti dute oinarri zientifikoa, "La primavera la sangre altera", egia dela uste dut. Enzimak, molekulak.... bai, aldatu egiten dira eta ondorioz alterazioak gertatzen dira. Garai honetakoak dira depresioak; egia da ugaritu egiten direla. Maniako-depresioak adibidez, depresio fasea edo "bajoia" udaberrian izaten dute eta fase maniako edo euforikoa, berriz, beste garai batean.

- **Zein beste gorabehera**



**jasaten du gorputzak udaberrian?** - Eguzkiak sortutako erreduarak esaterako. Neguan gorputza estalita dago eta eguzkitik babesteko melanina behar izaten du. Eguzkia neurririk gabe hartuz gero, erreduarak sortzen dira gorputzak babesik, hau da, melaninarik ez daukalako.

- **Eta zuri, udaberriak eragiten al dizu?** - Bai, nahikoa. Jertsearekin egon beharrean alkandora jantzita hobeto sentitzen zara. Are gehiago, kalera irteteko gogoia ematen du. Egia da eguzkiak on egiten diola gorputzari eta esaera zaharrak zerbaitegatik dira zaharrak eta jakintsuak.

go joaten bada ere. Hala ere, joera ez da orain dela urte batzuk bezain nabarmena.

Dieten kontuak ere, indarra hartzen du eguraldi onarekin. Nork ez du inoiz dieta bat egin, gero berehala lagatzeko ez bada ere? Argi dago, pisua kentzeko miraririk ez dagoela, eta dietistek dioten bezala, sekretua urte guztian zehar zainzteza dela.

## Osasuna berreskuratzen: estraktuak

Udaberrian sartu berri gara, urtaro berritzailea, toxinak kentzeko purifikatzailea. Gorputzaren oreka energetiko eta psiko-somatikoarentzat, aintzinako gomendio bat: goizeko ihintzarekin, belarraren gainean oinutsik ibili.

Teknika: martxo eta maiatza bitartean, goizean goizeko ihintza aprobetxatuz, belarrean oinutsik ibili. Ondoren hankak ondo sikatu, oinak igurtzi eta galtzerdi lodiak eta hankak estutzen ez dituzten oinetako erosoak jantzi eta ibiltzen jarraitu.

Teknika hau gomendagarria da zirkulazioa hobetzeko eta erlajazio sakona lortzeko. Inmunologia sistema ere hobetzeko ona da.

Jose Antonio Zuzazubizkar



# Fotero

OKINDEGIÀ  
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35

Kartutxo  
Pub



S.Frantzisko, 33 ☎ 74 27 24

# magu's

ILEAPAINDEGIA  
EDERGINTZA

San Roke 6 beheha tel. 74 34 91

# TIRO RIRO



San Frantzisko, 54. 74 13 86

# AITZ BIZKAR ARDOAK

ARDO ETA PATTARRA  
PATATA SALMENTA

Etxeainoko  
banaketa

Errosario 18  
☎ 74 02 37

# Tik-Tak

BATAIO  
ETA  
JAUNARTZE  
JANTZIETAN  
ESPEZIALISTAK

Errosario 21, ☎ 74 17 15 ELGOIBAR



# OINETAKOAK

OINETAKOAK

San Frantzisko, 34 Tel. 74 02 35

## ASTE HONETAN

# Ea udaberriak odola astintzen digun?

**N**ik erantzuna baiezkoa dela esango nuke, baina udaberri hitzak duen esanahiaren osotasun guztiaz.

Negu hotz, ilun, gogor, euritsu eta luze baten ondoren (halaxe deskribatu ohi da beti negua, ez?), aldaketa bat: uda berri bat. Denok (denok?) atsegin ditugu azken finean aldaketak, nahiz eta askotan ez adierazi.

Eskertzen da eguzkiaren sarrera beldurti hori, ez dakiela zer aurkituko duen, egunez egun indartzen doana eta, era berean, gu indartzen gaituena. Nagiak ateratzen dizkigun eguzki hori, neguko goxotasunak, kafesne bero eta kerosenozko berogailu baten usaiatz, ahaztu arazi egiten digun eguzki bera. San Lorentzora goazela kaskarrak berotzen dizkigun eguzki goiztar hori, bere lehenengo izpiekin eguzkitan daudenen gorputzak ikutzen dituen eguzkia. Nahiz gauez, nahiz egunez pretilean jarrita egon gaitezen berotzen duen eguzki hori. Ispiluekin, neska-mutilei jolasteko aukera ematen dien eguzkia. Alergiek sortarazitako doministiku guztiak eta hain abar luze bat.

Eta hau da udaberrian gure odolak jasaten duen suplizioa, baina zeinen goxoa. Horregatik aztoratzen zaigu odola eta odola ez dena. Neguko barruak utzi eta gure grina guztiak kaleratzen ditugu. Hortan datza suplizioa, jendea giroaz mozkortzen da,

hego-haizetu, maitemindu eta ilargi betearen esperoan jarduten du.

Bada baina odol hori irekiten jartzen duen arrazoi garrantzitsu bat, EGUZKIA.

Eguzkia, eguzkia da hitz klabea. Azken finean udaberriaren esnahirik zehatzena eguzkia litzateke. Bera da jasaten dugun guztiaren errudun. Eta errudun da, baita ere, gure menpekotasunaz. Horregatik ez ditugu atsegin aldaketak eta gauza guztiak bere lekuan nahi ditugu, liburua apalean, zintak bere kaxetan... Udaberrian sartu orduko, ez dakit zergatik, desoreka klimatologiko bat dago. Ohiturak aldatu beharko ditugu eta egunero leihotik begiratzean, horren arabera erabaki: zer, irakingo al dit gaurkoan odolak?

Auskalo, UDABERRIAREN zain egon behar.

(Hasperena) Udaberria.



BIXENTE IRUSTA



## Udaberriak eragiten al dizu?



### **KONTXI BEREZIARTUA**

36 urte, etxeoandrea

Nik uste dot baietz. Eguraldi onarekin hobeto sentitzen naiz, depresiorik eta holakorik ez. Eguzkixa eta eguraldi ona gustatzen jataz.



### **BLANKI RODRIGO**

38 urte, etxeoandrea

Neregan eragin ona dauka. Eguraldi onak animoa ematen dit, poztasuna. Udaberria gustatzen zait, lorak hazten dira, dena politagoa da.



### **AITOR MUJIKA**

31 urte, administraria

Fisikoki dekaimiento bat sentitzen dot, kantzazia eukitzen dot. Psikikoki ez, baina bueno, egualdi onak bizi poza ematen du beti.



### **JOSE LUIS ARANA**

38 urte, sukaldaria

Asko eragiten dit, zentzu guztietan gainera, gauzak txarto ateratzen zaizkit. Kalera irteteko gogo gehiagorekin, hori bai. Kirola egin eta mendira joan.



### **NEREA GABILONDO**

12 urte, ikaslea

Egualdi onakin kalera urtetzen gera eta lagunekin ondo pasatzen dot. Mendira ere gehixao juten gera. Negua hotza da eta erropa asko jantzi bihar da.



### **JUAN MEKOLALDE**

77 urte, jubilatua

Orain arte ez. Urtiak bizkarrian gehixao. Udaberriagatik ez dot nik ezer espezialik sentitzen. Batzuk juten dia Benidorra, baina ni baterez.



## **UNIFORM** **JUARISTI** Aroztegia

Egur-aluminiozko **UNIFORM** leihoak, egurrezko leihoen edertasun eta aluminiozkoen teknika batzen ditu.

- ➔ Ez dauka mantenu beharrik
- ➔ Haizea eta urarentzat isolatua
- ➔ Kolore efektu ikusgarriak
- ➔ Betirako leihoak

Arotz, kontratista eta etxe berrikuntzetarako mundiala.

BULEGOA: Ubitatrite, 2 behea. Tel.: 74 13 33

LANTEGIA: Santa Ana, 16. Tel.: 74 29 94



## Ikastolak Ohizko Batzar Nagusia ospatu zuen

San Bartolome Ikastolak 150 lagun baino gehiago bilduta, ohizko Batzar Nagusia ospatu zuen joan den hilaren 15ean. Lehendakariaren hitzaldiaren ostean, iazko balantze ekonomikoa eta honen aurrekontua, Ikastolako zuzendari pedagogikoaren txostena, 1992-93 ikasturteko memoria eta 93-94rako plana aurkeztu ziren. Izan ere, memoria pedagogikoaren arabera, 4-5 urtetik gora ingelesa irakasteaz gain, helburu pedagogiko irteera ugari burutzen dira urtean zehar. Honetaz gain, iaz Euskal Herriko I. Sketch lehiaketan lehen saria jaso zuten Ikastolako ikasleek eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte eta Segurantza Sailak antolatutako



AZKUE

programan aipamen berezia lortu zuten. 93-94 ikasturterako asmoen artean, euskara bultzatu, ingurugi-

ro heziketa eman asmoz irteerak burutu eta mendira irteerak egingo dira.

### ■ Lanbide Heziketari buruzko eztabaida IMHn

Elgoibarko Makina Erreminta Institutuan Lanbide Heziketa ereduari buruzko eztabaida garrantzitsu bat burutu berri da. Bertan parte hartu dute Estatuko lurralde gehienetako Lanbide Heziketako arduradunek eta hezkuntzarekin zerikusia duten sailletako ordezkariak. Eztabaidaren aurretik eskolako instalazioak bisitatu dituzte eta gero Estatuko Lanbide Heziketako ordezkariak etorkizuneko Lanbide Heziketako zentruaren eredia eztabaidatu dute.

Lanbide Heziketako Estatuko ordezkariak gain, Garantia Sozialeko programen arduradunak, bertokoak zein Estatukoak, izan dira. Arduradun hauek Garantia Sozialeko Programei buruzko II. topaketetan partehartu dute eta hurrengo topaketetarako metodologia eta informazio banaketa modua ezarri dute IMHn.



**Izugarrizko arrakasta** izan zuen hilaren 19an Mintxeta inguruan burututako automodelismo erakusketak. Antolatzailerikoa batek, Jon Gonzalezek esan digunez, "espero baino jende gehiago urreratu zen Mintxetara eta lehen esperientzia izateko, oso positiboa izan da", gaineratu du. Lasterketako irabazlea Avar izeneko taldeko Rafael Kapelastegi durangarra izan zen. Bost minutuko epean bira gehien eta birarik azkarrera durangarrak eman zuen. "Izandako arrakasta ikusita, laster beste erakusketa bat antolatuko dugu", adierazi du automodelismo lasterketan eta antolakuntzan parte hartu zuen Jon Gonzalezek. "Agian Trinidad edo San Bartolome jaietan izango da".



## Odol Emaileen urrezko garaikurra eman diote Ramon Maiztegi



Gipuzkoako Odol Emaileen elkarteak urrezko garaikurra ezarri dio Ramon Maiztegi elgoibartarrari, herriko Odol Emaileen Elkartearen alde egindako lanagatik. Ramonek baino lehenago hiru elgoibartarrek jaso dituzte urrezko garaikurrak: Demetrio Vallejos, Federico Iriondok eta Casto Iraegik.

Ekitaldia Plaentxin ospatu zen Deba bailarako ordezkarien partaidetzarekin. Ramon Maiztegi

Elgoibarko Odol Emaileen Elkarteak fundatzaileetarikoa bat da eta 30 urtetan beronen ardura izan du. Honez gain, 12 urtetan Deba bailarako ordezkari izan da.

Elgoibarko Odol Emaileen datuen arabera, gure herriak 450 odol emaile eta beste 400 bazkide ditu. Odol kopuruari dagokionean, urtean zehar 800 frasku lortzen dira Elgoibarren eta odola ateratzeko deialdiek nahiko erantzun ona izan ohi dute.

## ■ Gazte Asanbladak IGPak baliogabetzeko eskatu dio Arartekoari

Elgoibarko Gazte Asanbladak gutun bat bidali zion joan den hilaren 18an Aratekoari IGPen prozesua baliogabetzeko eskatuz. IGPen txostenak dioenez, Aratekoa da IGPen arduradun gorena eta beraz, berari zuzendu zaio Gazte Asanblada, hauek bidalitako proposamena prozesutik kanpo laga baitzuten. Gizarteak-L.E.S. enpresako arduradunek Gazte Asanbladaren proposamena "bidean galdu" zela adierazi zuten, errua Correos-i leporatuz. Gazte Asanbladak jakin izan duenez, "Gizarteak L.E.S.-eko arduradunek urriaren 29an jaso zituzten azkeneko Udaletxean jarritako buzoiko proposamenak, eta epea bi egun beranduago, hau da, urriaren 31ean bukatzen zen. Egun horietan bost proposamen aurkeztu ziren, tartean Gazte Asanbladarena. Horregatik Gizarteak enpresaren aldetik egondako neglijentzia salatu nahi du Gazte Asanbladak eta "neglijentziarik egon ez bada, apropos kanporatu nahi izateagatik eta, prozesua demokratikoa ez izateagatik eskatu diogu Aratekoari IGPen baliogabetzea".

*Mutua General de Seguros*

**ETXE ASEGURU BAT  
ETXE BAKOITZERAKO**

Pedro Muguruza 4 behea. ELGOIBAR. ☎ 74 26 99

**Cordon, Vilarchao, c.b.**

**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behea. Tel. 74 28 74 - 74 05 70

**KEMEN**  **Belardenda**

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31



## Irati Agirreazaldegi bertsolari gaztea, "Bilintx" sariketako finalean

Irati Agirreazaldegi 16 urteko bertsolari gaztea, "Bilintx" sariketako finalerako sailkatu da beste lau neska eta hiru mutilekin batera. Sailkatuak Galdakaoko Arkaitz Estivalle, Orioko Iker Sukia, Zarauzko Nahikari Gabilondo, Hendaiako Nagore Fernandez, Gernikako Oihane Enbeita, Bilboko Iker Elordui eta Ondarruko Leire Bilbao izan dira. Ategorrietan jokaturako lehen fasean, Karlos Aizpurua izan zuten gai jartzaile eta

epaimahaian Joxerra Garziak, Antton Kazabonek eta Rufino Iraolak jardun zuten.

Finala igandean izango da, hilak 27, goizeko 11,30etan hasita eta Ategorrietako ikastetxe publikoan. Partaidetza aldetik, arrakasta handia izan du sariketak eta izena eman zuten berrogeita hamalau bertsolarien artetik, hogeit hamar mutil aukeratu zituzten, tartean Irati Agirreazaldegi elgoibartarra.



**Nathalia** izeneko elgoibartar hau "canción melódica" deitzen den horren adierazgarri dugu. Profesional bezala, estrainekoz kantatu zuen herritarren aurrean joan den hilaren 18an, "guass" dantzalekuan. Ermuko "El Rocio" taldeko Mariano eta Maite dantzarien ekinaldiarekin tartekatuz, ondo baino hobeto moldatu zen abeslari elgoibartarra taula gainean. Nathaliak berak esan digunez, guztiz harrিতuta geratu da bera entzutera gerturatu zen jendetzarekin: "ez nuen espero Elgoibar batean horrelako harrera izaterik" aitortu digu. Txikitatik kantatzen du, "4 urte nituenean dagoeneko As Anduriñas gaita taldean profesional bezala nengibilen". Nathaliak telebista kate pribatuetan abestu du eta Espainiā osoan ibili den arren, bere ilusioa Andaluzian abestea da. "Aurtengo abuztuan joango naiz seguruen".





**Gatza ateneoaren lehen saioa** burutu zen joan den hilaren 19an, gai zentrala drogak eta gazteak izan zirelarik. Dozena bat lagun, pentsakera eta adin ezberdinetakoak, bildu ziren. Gatza ateneoaren arduradun den Iñaki Uriberen aurkezpenaren ostean, galde-erantzun saioa eta hizketaldi polita sortu ziren. Droga berrien ugaltzeaz gain, alkoholaren kasuan, gazteen artean edateko ohitura aldatu egin dela aipatu zuten. Izan ere, gazteek larunbatetan bakarrik edaten dute, eta ardoa jadanik ez da gehien edaten dutena. Alkohol nahasteek hartu omen dute ardoaren errelebua eta “klarimostoa” bezalako edariak nagusitu omen dira gaurko gaztetxoaren artean.



**Elgoibarko Udal Txistulari taldea** eta Inazio Bereziartua musikaskolako ikasleak Arrasaten izango dira datorren hilaren 27an. Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasleen laguntzaz eta Juan Karlos Larreategi elgoibartarraren zuzendaritzapean, kalejira eskainiko dute eguerdiko 12,30etan. Segidan, kontzertua bat emango dute Udaletxeko arkupeetan. Juan Karlos Larreategi Udal Txistulari taldeko kide da eta Donostiako Goi mailako Kontserbatorioan txistu ikasketak burutu ondoren, Arrasate Musikaleko irakasle lanetan dabil.

## ■ Alemaniar batek piezen neurketarako programa sortu du IMHn

Manfred Worm alemaniar gazteak Elgoibarko IMHn burutu duen proiektua aurkeztu berri du. “Pieza erreal bat digitalizatzerakoan lortutako puntu hodei batez eginiko tratamendu matematikoa ASCII fitxero bati” izenez definitu du Manfred-ek bere lana eta bi zatitan banatzen da. Lehehengo lana, pieza original batetik ateratako informazioa digitalizatzeko programa bat sortzea izan da. Digitalizatzeko datu ugari sortzen ditu eta hori arazo bat bihurtzen da ordenagailuz tratatzea nahi denean. Arazo hau zela eta, proiektuaren bigarren zatiari heldu zion, datuen kopurua txikituko zuen programa bat bilatuz.

Ondorioz, neurketa makinaren bitartez lorturiko datuen tratamendurako programa sortu zuen bai eta datu horiek berreskuratzeko programa bat ere. Horien bitartez Manfred Worm-ek piezen fabrikazio eta kopiak egiterakoan kalitate kontrolean ematen diren arazoak konpondu nahi izan ditu.

Manfred telekomunikazio espezialitatea egiten ari da eta egun IMHn dago, COMETT izeneko kooperazio programa barruan.

## ■ Zazpikiren asanblada

Larunbat honetan, hilak 26, Zazpiki Irratiak ohizko asanblada burutuko du Kultur Etxean. Asanblada eguerdiko 12etan hasiko da. Gogoratu bestalde, Zazpiki Irratiak zuzenean emango duela hilaren 26an, larunbata, arratsaldeko 16,45etan Mintxetan jokatu den Haundi eta Getxoko Arenas taldeen arteko partidua. Hurrengo futbol partiduen zuzeneko emankizuna ostegunean, hilak 31, izango da. Haundik Ammorebietaren aurka jokatu du Mintxetan arratsaldeko 16,45etan hasita.



Iñaki Uribe:

## “Hizkuntzak ikastea jatea bezain beharrezkoa dot”

Iñaki Uriberen ikasteko gogua eztauka mugarik. Industria injenieru karrera bukatu berri duen 25 urteko elgoibartar honen jakin nahia ase ezina da. Injenieria izateaz gain, oso gustukoak ditu hizkuntzak, historia, geografia, psikologia eta soziologia. Azkenengo 10 urteotan

lau hizkuntza ikasi ditu: ingelesa, frantsesa, kataluiniera eta italiara. Gaur egun galegoa, portugesa, errusiera, alemana, flamenkera eta aranesa menperatu nahian dabil. Ia danak bere kontura ikasi ditu, horretarako Iñakik metodo propioa erabiltzen du eta.

- Zer egiten du injenieriari batek letren munduko saltsan sartuta?

-Jende askok egiten didan galdera da. Zientzia asko gustatzen jata, baina ez dot uste, inolaz ere, hori beste zaletasun batzurekin inkompatiblea danik. Hizkuntzak ikastea, adibidez, oso interesgarria dala uste dot, euren bitartez kultura ezberdinak ezagutu ditzakegularako.

- Ikasi dituzun hizkuntzetatik zein dozu gogokoena?

- Katalana, dudarik gabe. Nik eta nere familiak han pasatzen dogu uda. Katalunia nahiko ondo ezagutzen dot, asko gustatzen jatan herria da. Euskalduna eta katalana naitzela esaten dot nik beti. Momentu honetan katalana-euskara hiztegi bat egiten ari naiz katalana ikasi nahi duten euskaldunentzat. Eztakit egunen batian bukatzerik izango dudana.

- Orain beste bost hizkuntza ikasten ari



“Hizkuntzek kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ematen dabe”.

zara. Zeinek kentzen dizu denbora gehien?

- Guztien gainera bat aipatuko nuke: aranesa. Askok maite doten hizkuntza da. Kataluniako iparraldean hitzegiten da, Aran bailaran. Ez da katalanaren dialekto bat, Okzitaniako gaskoiarena baizik. 6.000 pertsona inguruk bakarrik hitzegiten dabe. Oso kuriozosa da.

- Zelan konpondu zera zure kontuz bakarrik

ikasteko?  
- Ingelesa kenduta, gainontzeko hizkuntza guztiak nere kontura ikasi ditut. Horretarako bi gauza bakarrik behar dira nere ustez: alde batetik hizkuntza hori irratian, telebistan edo kantuan entzutea, eta bestetik Hiztegia eta Gramatikazko liburuak bat. Elementu hauekin eta norberak ipintzen daban gogurekin edozein mintzaira ikas dai-

teke.

- Eta euskarari kasu egiteko astirik euki al dozu?

- Bai, noski. Unibertsitatean, adibidez, lan dexente egin behar izan dogu euskararen presentzia indartzeko. Bestalde, momentu honetan Elgoibarko Bertso Eskolako partaide naiz. Bertsolaritza asko gustatzen jata.

- Elgoibarko euskeriaren inguruan ere zeozer egin dozu, ezta?

- Elgoibarko euskaria orain dala bi urte hasi nintzan aztertzen amama eta aitxixarekin berba eginaz eta kantuan entzuten nabana jasoz. Gure euskaria oso interesgarria dala uste dot, eta horregaitik ahalegin guztiak egin behar ditugu ez galtzeko, batez ere gaztiok. Euskara batua behar-beharrezkoa da, baina gure euskalkia hiltzen uztia demaseko hanka-sartzia izango litzateke.

AITOR ZABALETA



# "Sexu diskriminazioa"

Pasa den asteko ostegunean, hilak 17, izan zen Elgoibarko Izarra kultur Elkarteak antolatutako lehen mahaingurua. Martxoan izanik, eta hilabete honetan emakumearen inguruko kontuak pildetan daudela aprobetxatuz, "sexu diskriminazioa" izan zen aukeraturiko gaia. Herriko zazpi pertsona bildu ziren mahai baten bueltan, sei hizlari (Nati Garitano, Luis Bilbao, Pilar Larrañaga, Ana Artetxe, Iñaki Elustondo eta Eduardo Osoro) eta moderatzailea (Itziar Fernandez, Emakundeko idazkaria). Ikus-entzu-

le gisa hirurogei lagun pasa hurreratu ziren, emakumeak gehienak. Eta horien artean ere batek baino gehiagok hartu zuen parte bere iritzia azalduz. Pare bat orduz luzatu zen mahaingurua, motzak egin ziren orduak, hainbat eta hainbat gai ikutu gabe gelditu ziren eta. Ziur guztien ahotan geratu zen zapora gozoa ikutu mikats batekin nahastu zela. Gai interesgarria baina ezin bi ordutan dena landu. Hurrengo baterako utzi ziren zenbait azpi-gai: emakumea komunikabideetan, sexualitatea...



Hurrengo bi orrialdeetan, sei hizlariak esandako hitz adierazgarrienak bildu ditugu. Hona hemen zein galderei erantzuten diete, besteak beste: Ba al dago sexu diskriminaziorik?, Norena da errua?, eta irtenbiderik egotekotan, zein izango litzateke? lan asuntua, nola dago?, ezberdinak al gara benetan gizon eta emakumeak?, ...

Azkenengo orrian, berriz, entzuleak hizlari bihurtu ditugu, mahainguruari buruzko hiruna galdera eginaz.

Jarraian, mahainguruan atera ziren ondorio batzuk zerrendatuko dizkizuegu:

- Sexu diskriminazioa badagoela, gazteen artean gutxiago ematen dela dirudien arren.

- Lan munduan nagusitzen dela, bereziki, diskriminazio hori. Kapazitate berberekin, lan berdina egiteagatik, soldata txikiagoa jasotzen dute askotan emakumeek.

- Emakumeon autoestima bajuagoa da, jaso dugun heziketaren ondorioz.

- Ez da borroka bezala planteiatu behar den arazo bat. Emakume eta gizonak ez gara etsaiak. Eboluzionatzen joan behar dugu, biok elkarrekin.

- Emakumeok dugun mugarik handiena etxeko-lanak eta seme-alabak dira.

- Hezkuntzan jorratu behar dira lehen urratsak: etxean, eskolan, komunikabideetan...

- Emakumeak bere denbora libre eskatzen du.





● Nati Garitano ●  
Administraria

**"Emakumiok anbiziorik ere ezin dogu euki"**

● "Oin arte emakumeak ez gaituzte prestatu gizonekin konpetitzeko lan munduan."

● "Anbiziorik ere ezin dogu eduki, kanpoko lanaz gain etxekua eta familixia ere badaukagu eta."

● "Gizona arazo gabe joaten da kanpora ikastera, lan kontua dela eta. Emakumia, berriz, ezin da gau bat etxetik kanpo egon, umiak baldin badaude tartian behintzat. Ni ibili izan naizen ikastaruetan, emakumiak beti joaten ginan etxera lotara, gizonak ez. Eta gehixenok zakagun familixia eta seme-alabak."

● "Edukazio desberdina jaso dogu. Etxian desberdin hazi gaituzte, eskolan ere, andrak etxian ikusi ditugu, etxeko lanetan... Ezkontzian ere, emakumiak etxeko lanak kanpokuakin lotuko ditu, bixak eginez. Gizonak, ostera, bere bizimoduarekin jarraitzen dau."

● "Gaur egun, oraindik ere, segun eta ze gauza ari den egiten, gizon bati "marichica" deitzen jako. Emakumiak bere bikotia etxeko lanak egitea lortzen badau, berriz, kanpotik "vaya dominante" eta holakuak entzun bihar izaten ditxu."

● "Etxe guztia txukun eta garbi edukitzeaz emakumia arduratzen da, bere lana da, beti horrela egin dau eta gizonak ez du planteatu ere

egiten, komoduagoa da eta. Beren lantokian, en kanbio, ez al jakue bada bere tokian eta ongi ordenatuta ikustia gustatzen? Ziur euren lantokian gizonak gehixao arduratzten dirala garbiketaz etxian baino."

■ Luis Bilbao ■  
Jubilatua

**"Diskriminaziua ez, desberdintasuna bai"**

■ "Nik ez nuke esango diskriminaziua dauanik, ezberdintasuna bai, baina diskriminaziua ez."


■ "Emakumiak etxeko lanak egitera ohituak daude, beti egin dituzte eta, egin ere, hobeto egiten ditxue guk gizonok baino."

■ "Askotan emakumiak batere garrantzirik ez daken gauzeri demaseko inportantzia ematen diue, gehixegi! Garbitasuna dala, arropak dirala... Lana hartu, besterik ez."

■ "Soziedadian ardatza familixia da eta familiaren zutabia, neretzat, gizona. Guk hori hain garbi eta hain zehatz ikusi dogu! Orain hori desmontatzia ziharo zaila eitzen jaku."

■ "Gaur egun eskolan aukera berdina ditxue neska eta mutilek. Oin ez da arrarua makina-erreminta ikasten ari den neska bat ikustia."

■ "Azkenian helburua zorientasuna da, danok bilatzen dogu berdina, eta gizon zein emakumiok batera lortzen badogu, hobeto oindiok!"



▲ Pilar Larrañaga ▲  
Etxekoandrea

**"Oingo neskak ez dia sukaldian gelditxuko"**

▲ "Gure artian seguru dauala sexu diskriminaziua, gaztien artien ez hainbeste."

▲ "Emakumiok ere badaukagu gure kulpia. Urriak dira umien edukazioa amen eskutan dauala, eta matxista asko egin ditxugu."

▲ "Oin desberdina da, neskek badakixe ez dala sukaldian gelditxuko eta mutilek ere badakixe ez dabela eurentzat lan egingo daban neskame bat topauko."

▲ "Desberdintasuna diskriminaziua da, ze desberdintasun hortan beti emakumiok irten gera galtzen."

▲ "Gizon eta semiek ez diote inportantziarik ematen gauza askori, ba al daka inportantziak ohia goizeko 8etan edo arratsaldeko 6etan egi-teak? Neretzat badaka, horregatik nahixao dot goizetik dana eginda lagatzia, egun osuan dana hankaz gora ikustia baino."

▲ "Aurrerakuntzek lana erraztu digute, baina lehen praka bat besterik ez zakagun eta astian behin garbitziakin nahikua zan. Oin mila praka daude, labadoria ipini bihar da, arropa ixigi eta plantxia egin..."

▲ "Gure edadekuok soka bat dakagu ondiok, lotuta gaude neurri batian. Atzetik datozenak gauzak argi ditxue, berdintasuna nahi dabe eta lortzen ari dira, poliki-poliki."



## ◆ Ana Artetxe ◆

Administraria

### "Gizonek euren mundua egin dabe"

◆ "Etxian ez dot diskriminaziorik igertzen, baina lanean bai, asko. Oin dela 12 urte lortu naban daukadan lanpostua, mutil baten ordeztatu nintzan. Ondiok ez dot bere soldata berdina jasotzia lortu, beti jartzen didate aitzakiaren bat."

◆ "Gure departamentuan emakume guztiak "auxiliarrak" gera, gizonezkuak, ostera, "responsables"; eta danok lan berdina egiten dugu."

◆ "Bi arraza gera jaiotzez, emakumia eta gizona. Nik bi ume ditut, neskia eta mutila, eta ziharo diferentziak dira txiki-txikitatik, eta nik igual edukatu ditut."

◆ "Gizoneri zeozer komentatzen badiezu, "honeraino nago eta eziazu gehixao esan"erantzuten dabe. Gauza bakarra kabitzen jakue buruan. Gurian, berriz, mila gauzek dake tokixa, mila arraixa daude eta danak kabitzen dira. Gure arazo eta ardurak gehi, askotan, gizonenak."

◆ "Emakumiok daukagun lanarekin konformatzen gera: familia, umiak eta soldata bat hilaren azkenen... Ezkondu baino lehen izan ditzakegun anbiziak gizonari uzten dizkiogu. Autoestima bajua dakagu. Kapaz izango ez gerala uste dogu eta estankatu eitzen gera."

◆ "Gizartia beti egon da gizonen esku eta euren erara planteatu



dabe beraiena dan mundu bat."

◆ "Emakumiak pertsona bezela askoz kapazidade haundixaua dake la erakutsi dau. Urtien buruan indarrak atera behar izan ditxu, handik eta hemendik, eta gauza asko eitzeke ahalmena lortu dau. Gizonak ez dau sekula beharrik izan, eta hor egon da, bere tokixan."

## ◆ Iñaki Elustondo ◆

Tekniko Komertziala

### "Neskek umetatik dake 'complejo de cenicienta' "



◆ "Umetatik neskeri politxak eta zintzuak diala esan diegu eta mutilereri fuerte eta bizixak. Gauza berdinan aurrian neskia gaiztua da, mutila matxotia. Jolasetan ere, neskek kozinetan sukaldariak dira, mutilak zer jan nahi daben agintzen daben gizontxuak."

◆ "Umetatik sortzen da neskegan "complejo de Cenicienta" delakua. Umiek etxian ikusten dabena itxera ohitzen dira, hori jotzen dabe normalizat. Gainera, mutila da beti neskia salbatzen dabana."

◆ "Asko aldatu da baina arrastuak geratu dira. Emakumiak gehixao borrokatu bihar dau. Iraultza guztiak bezala hau ere ez da egun baten lortuko, urte asko behar dira."

◆ "Ikasketetan ere ez dira aukera berdinak ematen. Nolabait baldintzatzen ditugu, edo mugatzen behintzat. Esaten al diegu mutilei sekretaria ala erizain ikasketak egi-

teko? Eta animatzen al ditugu neskek mekanika egitera?"

## ✕ Eduardo Osoro ✕

Brigadako arduraduna

### "Iraultza ez, eboluzioa da hitza"

✕ "Sexu diskriminaziua egon da, badago eta egongo da."

✕ "Edukazio on batekin ezberdintasun hori parekatu laike."

✕ "Ez gera elkar ezagutzen, ez dago komunikaziorik. Eskatzen ikasi bihar dogu, eta ematen."


✕ "Lehen gehixao hitzegiten gendun. Oin egun osua ematen dogu kalia eta, etxera bueltatzian, Barandiaranek esan zaban bezela "kalerako leihoa" zabaltzen dogu, telebista. Ez dugu elkar ezagutzen."

✕ "Gizona feminista izatia lortu bihar dogu. Ez da borroka bat izan bihar, borrokek mendekua dakar eta amaierarik gabeko borroka izango litzake. Batera jun bihar gera bidian, gizona eta emakumia."

✕ "Iraultza ez, eboluzioa da hitza."

✕ "Neskek gizonen trebetasun, habilidade eta kapazitate berdina dake. Gehixao, ze konpetitibitatea dauanez, derrigortuta daude gorago jutera gizonaren parian egoteko. Lan berdina eitxiagatik soldata bera jaso nahi badabe, gizonak baino gehixao izan bihar dira."

✕ "Gizonak ere diskriminatuta gaude, emakume batzuek inutilak gerala uste dabe."





## Ana Belen Garcia

16 urte, ikaslea

1.- Ez nekien ezer mahainguruari buruz eus-kalategian esan ziguten arte. Gaia ineteresgarria iruditzen zait eta horregatik etorri naiz.

2.- Oraindik ere ematen da sexu diskriminazioa, lehen baino gutxiago, baina ematen da. Nik etxean nabaritzen dut gehien, etxeko lanak egiteko orduan. Anaia bat daukat baina neska naizenez neuk egin behar izaten dut dena.

3.- Oso ondo iruditzen zait jendearen iritzia jasotzea, gehiago egiten badira ere etorriko naiz.

## Jose Luis Azpillaga

37 urte, irakaslea

1.- BARRENen irakurri nuen eta interesgarria iruditu zitzaidanez etorri naiz. Mahainguruak oso ondo daude, ideia ezberdinak dituen jendea biltzea.

2.- Arlo guztietan ematen da sexu diskriminazioa. Arazoa konpontzeko hitzegin eta kontzientzia sortuz hasi behar da.

3.- Ideia berri batzuk atera ditut eta kontzientzia handiagoa hartu dut arazari buruz. Komunikazio falta komentatu da eta hori oso grabea da.

## Jesus Mari Bilbao

53 urte, enpresa zuzendaria

1.- BARRENen irakurri naban mahainguruau zauala eta anaiak parte hartzen zabanez...

2.- Diskriminazioa egon da eta dago, baina problema eztabaida hau baino askoz zabalagoa da. Molde berri batzuk bilatu behar ditxugu eta horiek praktikan ipini, danok.

3.- Mahainguruetan

1.-Zergatik etorri zara?

2.- Zein iritzi daukazu gaiari buruz?

3.- Nola ikusi duzu mahainguruua?

Ezer berririk ikasi al duzu?



ANA BELEN GARCIA



ROSA MARI MENDIZABAL



JOSE LUIS AZPILLAGA



MARIA JESUS IRANZO



JESUS MARI BILBAO



JOSE LUIS IBARZABAL

beti ikasten da, herritarren artian eitxen diran elkarriketetan kaleko bizimodua isladatzen da. Nere ustez mugatuta egon da, zaila da tematika hau hola-ko eztabaida labur batian sakontzia.

## Rosa Mari Mendizabal

51 urte, etxekoandrea.

1.- Mahainguruua zauala esan die, holako gauzak asko gustatzen jataz eta nere lehengusina zanez

moderadore, ba etorri egin naiz.

2.- Sexu diskriminazioa badago, lehen gehixao. Nik 31 urte daramazkit ezkondata eta iruditzen jat nere gizonak gaur egunian gehixao lagunduko ziala. Guk lehen ez zaka-gun ezer esaterikan, burutik pasau ere ez jakun itxen gizonañi aspiradoria pasatzeko esatia. Oin, seme bat etxetik kanpo bizi da neskiakin, eta bixen artian itxen ditxue

gauza danak.

3.- Betiko gauzak esan dia eta ikasi, ikasi ezin laike esan egin dotenik, baina ondo egon da.

## Maria Jesus Iranzo

24 urte, langabetua

1.- Deitu egin die mahainguruua zauala esaten eta gaixa interesatzen jatalako etorri naiz.

2.- Diskriminazioa badao. Gure kulpia ere bada, emakumiona, seme-alaberi holaxe irakasten diegulako. Amak anaiari ez zion neri beste gauza egin arazten. Alde horretatik amen errua da, baina orain anaia nagusitxua da eta nahi izango balu ikasiko luke, ez du egiten komodidadiagatik.

3.- Berririk ez dot ikasi ezer. Betiko gauzak. Igual denbora gutxiegia egon da eta sexualitatiari buruz ez da hitzegin, pena bat izan da.

## Jose Luis Ibarzabal

35 urte, irakaslea

1.- BARRENen irakurri dot eta kalia ere entzun dot honen berri. Gaixa bera interesantia da eta horregatik etorri naiz.

2.- Sexu diskriminazioa dauala gauza nabarmena da. Egoera honen aurrean zer egin daitekeen eztabaidatu beharko genuke, ez diskriminazioa dagoen ala ez diskutitu.

3.- Gauza berriak esatea zaila da, baina herriko jende normalarekin horrelako eztabaidak egitea oso garrantzitsua da. Gizon gutxi geundela? Horrelako gauzetaz emakumeek hitzegin behar dute, eurak dira sufritzen dutenak eta. Guri entzutea eta ikastea tokatzen zaigu.



## Miriam Iriondo

"Iriondo Kirolak" ekoa.



- **Noiztik saltzaile mundu honetan?** ▶ Bost urte.
- **Uda ganean dagoela eta, zer jantzi mota gomendatuko zeniguke?** ▶ Jantzi eroso eta informalak.
- **Egungo jantzi deportiboak, elegante bilakatu direla esango al zenuke?** ▶ Bai, diseinu aldetik, kaleko jantzi bihurtu dira.
- **Mendizalea al zara?** ▶ Bai, baina alfer xamarra naiz.
- **Kirol mota guztietatik, zein duzu gustukoen?** ▶ Mendiarekin zerikusia duten guztiak.
- **Zer diozu Mintxetari buruz?** ▶ Inpresio oso ona eman dit, nire ustez oso ondo geratu da.
- **Hobbyrik bai?** ▶ Motxila hartu eta edozein tokitan azaltzea.
- **Non izan zara pasa den udan?** ▶ Txinan.
- **Zure ametsetako bidaiak?** ▶ Urtebete batez Asia aldirian mugitua.
- **Zergatik?** ▶ Hango kultura eta jendea sakonago ezagutzeko aukera ematen duelako.
- **Atzerrian ere bizi izan zara, Ingalaterran hain zuzen ere. Esperientzia ona izan al da?** ▶ Nere ustez oso esperientzia positiboa izan da.
- **Alde txarririk?** ▶ Lan oso gogorak egiten dituela, errenkonpentsarik gabe.
- **Nominatutako filmeetatik, zeinek irabaziko zuela uste zenuen?** ▶ Irabazi duenak, hain zuzen ere, Spielberg-enak.
- **Merezi al zuen "Belle Epoque" filmeak lortutako oskarra?** ▶ Bai, noski.
- **Aste Santuan oporrik bai?** ▶ Bai.
- **Nora?** ▶ Mallorcara. Joan zen urtean ezagutu nituen lagun batzuk ikustera noa.

ISABEL ANSOLA

## UDABERRIAREN ETORRERA

### DOINUA:

Goizian goizik jeiki nüntüzün

Elurak ihes egiten ohi du haize hotzen babesera.

Eguzkiaren orratz luzeak iristean magalera.

Haren irrintzi epela azkar landa-zelaietan hedatzen da.

Negua ere urruntzen zaigu hilbeherarekin batera.

Udaberria izaten baita horren aro berezia.

Izai argia, hosto malguaz da iratzartzen hasia.

Pago enborren amets astunak goroldioak nahasia.

Goizeko laino behetarretik edaten dute bizia.



JON BARANDIARAN

B  
E  
R  
R  
I  
A  
R  
E  
N  
E  
T  
O  
R  
R  
E  
R  
A

**UDA BERRI**  
**ELGOIBAR**

**INTERIORES**  
- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK  
- ATE TOLESGARRIAK  
- BARRUKO ARMAIRUAK  
- DEKORAZIO GAIK  
Tel: 74 40 55 - 74 40 19.  
Errosario 15 Behea.

**AZPELETA**  
**elektrizitatea**  
San Frantzisko 51, behe. Tel: 74 12 38





## Gazteak eta alkohola Elgoibarren

Orain astebete Eibarko Udaletxeak gazteengan ematen den alkoholaren kontsumoa kontrolatzea eskatu zion Elgoibarko Udalarari. Jose Ignacio Elkoro-Iribe alkateak erantzuna luzatu du. Alde batetik, errua guztiona dela azaldu du, "instituzio, tabernari eta gurasoak ere barne". Larunbat arratsaldetan 3.000 gazte urreratzen omen dira Elgoibarrera inguruko herrietatik. Legez, debekatuta omen dago 16 urtetik beherakoei alkohola zerbitzatzea. Hala ere, "Udaletxeak ez ditu nahikoa baliabide legea bete arazteko", dio alkateak. Arazoa konpontzeko bide bat, legea betetzen ez duten tabernak istea izango litzateke baina, "irtenbide honek istiluak sor ditzake". Abenduan bilera bat egin zuten Udaletxeko zenbait ordezkari eta tabernariak eta denbora gutxi barru bigarren aldiz biltzekotan dira. Momentuz Udaltzain kopurua handitu dute, ordu hoietan sor daitezkeen arazoak ekiditeko.



## Udaltzaingoaren oharra

Ostegunetan, azoka dela eta, goizeko 8etarako kendu behar zen kotxea Plaza Txikitik, orain arte. Datorren ostegunetik aurrera, ordea, lehenago kendu beharko da, goizeko 7etarako.

# San Migel erreka-stoan obrak egingo dituzte

**A**ste honetan proiektu berri bat onartu da San Migel erreka-stoak sortzen duen uholde arriskua ekiditeko. Metalkua baserrian hasi eta Deba ibaia bitartean burutuko dira obrak. Menditik behera datozen enbor, egur eta zaborrak eusteko urtegi berri bat eraikiko da. Bertan geratuko dira erreka bide naturala oztopa ditzaketan elementuak.

Gaur egungo erreka-stoaren estaldura oso egoera txarrean aurkitzen da, ibilbideak apenas urik darama eta, hainbat eraikuntzen azpitik pasatzean, erabat ezinezkoa egiten da probetxurik ateratzea bertatik. San Migel erreka-stoa Deba ibaia arte bideratuko da, 140 metroko luzeraz eta 4 metroko zabaleraz.

Ura arinago joango da, trabak ere gutxituko direlarik.

Orain dagoen bezala, San Migeletik jeisten diren urek ezin izaten dute Deba ibaira irten, azken hau oso hazita badator, Txankakua zubiaren azpian daukan irteeratik. Horregatik, ibilbide berri bat egingo zaio aipatu erreka-stoari, Metalkua baserrietik Zubi-Ondo elkartera ia zuzen joango delarik, bertan bira txiki bat eman eta, berriro ere, Deba ibaira zuzen zuzen bideratuz. Guztia, beti ere, errepidearen azpitik.

Proiektu honen aurrekontua 436 milioitik gorakoa da. Kopuru horretatik %75a Estatuaren esku geratuko da gainontzeko %25a Gipuzkoako Diputazioak jarriko duelarik.



## UDALETXEKO LANGILEAK EZAGUTZEN



▲ **IZENA:** Amaia Gabiola

▲ **ADINA:** 26 urte.

▲ **LANPOSTUA:** Ongizate saileko auxiliar adiministraria.

▲ **FUNTZIOA:** Ongizate saileko lan adimintratibo guztia, aktak erredaktatu, jendeari txanda eman eta eskaera guztiak tramitatu.

▲ **NOIZTIK LANPOSTUAN:** 1989tik.

▲ **LANAREN ALDE ONA:** Jende asko ezagutzen da.

▲ **ALDE TXARRA:** Administratibo bakarria izatean lan asko pilatzen da eta gauzak ez dira nahi bezain azkar eta ondo egiten.



## Olasoko portadako dekorazioa

■ Olasoko portadak bi helburu betetzen zituen lehen:

■ Alde batetik, eliza-parrokia izan zenaren sarrera edertu eta nabarmendu. Garai batean, egun baino zortzi eskultura gehiago zeuden dirudienez, bai eta hainbat eskultura eta erliebe ere, azken hauek, gainera, margotuta zeudelarik.

■ Bestetik, portadako irudietan kristau ikasbidea gauzaten da. Garai hartako ikus-entzuteko funtzio didaktikoa beteko luke. Irudi haietan oinarrituta, ebanjelioko pasarteak eta santuen bizitzak azaltzen zituen apaizak.

■ Ateangoetan dauden eskulturak tamainu naturalekoak dira: S. Sebastian, S. Juan Bataiatzailea, S. Pedro, S. Pablo eta S. Bartolome apostoluak. Eskultura bakoitzak santu bakoitza identifikatzen duen ezaugarri bereziak ditu. Aurpegietan indibidualtasuna, jite ezberdinak, ilea, bizarra eta begiak modu bereziz modulatu daude. Orokorrean, aurpegi luzeak, kokots irtenak, begi almindratuak eta ile zein bizar ordenatuak ikus ditzakegu.

■ Aurpegiek seriotasuna eta oreka izpirituala azaltzen dute. S. Sebastian da zurrunena, enbor itxura du. S. Bartolome da naturalena, bere begiek bizitasun


gehiago dute, ezpainak erlaxatuta ditu, soinekoaren tolesdurak bolumen haundiagoa hartzen dute eta proportzio orekatuagoa erabili zen gure zaindariarekin.

■ Bi arkiboltetan tamaina txikiko eskulturak daude. Estilo bakarra eta modelatu fina erakusten dute guztiak. Bakoitza sinbolo ezberdinez ezaugarrituta dago. Aurpegietan indibidualtasuna eta oreka izpiritual nahikoa naturala azaltzen dute, sentimendu zehatzik agertu ez arren.

■ Ganga ohiaren bi abiapuntutan sei erliebe txiki kokatzen dira. Lau gizaki buru, munstro-krokodilo bat, hosto eta fruituak.


■ Portada gaineko harri buruak falta diren sei irudien oinazpikoen dekorazioak dira. Lau giza buru eta beste bi animalia buru. Sei erliebeek esanahi handia dute. Irudien aurpegiek desitxuraketa adierazkorrak eta erakusten dituzte. Artegatasuna eta beldurra dira isladatzea nahi dituzten sentimenduak.

PELLO ARRIETA



## Laureano Ansola

Txistularia (1878-1951)



ARAGO

- Silvestreren semea eta Ansolatarren dinastiako laugarrena.
- 1878. eko uztailaren 4an jaio zen.
- Aitona Erroketxoren ordeztan hasi zenean, 1911an, 32 urte zeuzkan.
- Txistuaren sekretu guztiak ezagutzeaz gain, Bilboko bandan bonbardinoa jotzen zuen. Beranduago, Elgoibarko bandako zuzendari-ordea izan zen.
- Txistulari ona eta ekitaldi bikainak burutzeaz gain, guztiz harro sentiarazten zion familiaren tradizioaren luzatzaile izateak, izan ere, bost txistulari bikainen aita izan zelako, "Ansola anaien" aita, alegia.
- Semeak nagusitzen zozzen heinean, bi txistulari talde sortu behar izan zituzten: batean aita eta bi seme, eta bestean gainontzeko hiru anaiak.
- 1936. urtean, Gerra zibila zela eta, Markinara alde egin zuen bost semeekin batera. 1939ean, Bandako zuzendaritza laga zuen.
- 1951.eko urtarrilaren 14an hil zen.

# Ametza

## KAFETEGIA

San Inazio, 2 ☎ 74 27 22 ELGOIBAR



## Arrillaga, s.l.

### INPRIMATEGIA

DISEINUA -FOTOKONPOSIZIOA- ETIKETAK, CARPETAK ETA KARTELAK, FOILETOAK, KATALOGOAK- TIPOGRAFIA- OFFSET

Trenbide, 13 behea.ELGOIBAR. ☎ 74 01 87 Fax: 74 27 40



## MOTZAK

### Emaizta onak eskolarteko Euskadiko Kros txapelketan

Elgoibarko atletismo eskolako haurrak fin ibili ziren joan den igandean Zarautzen jokaturako Euskadiko Kros txapelketan. Nesken alebin taldeak hirugarren postua lortu zuen 16 talderen artetik. Talde honetan zegoen Mireia Huidobro, Euskadiko bostgarren geratu zen. Huidobroz gain talde hau osatu zuten Evelyn Santosek, Oihana Chicok, Ana Etxanizek, Oihana Martinezek, Maite Arenalek eta Eluska Escuderok. Mutilen infantil taldea Gorka Sanchezek, Fco. Javier Huidobrok, Asier Arenalek, Unai Arrietak, Alain Ayalak eta Asier Etxanizek osatu zuen eta hauek bigarren geratu ziren maila bereko 16 talderen artetik. Txapelketak ez ohizko ikusleak izan zituen: Zarautzko hondartzan igerian zebiltzan izurdeak, alegia.

### Igeriketa txapelketa Olaizaga kiroldegian

Olaizaga Kiroldegiko igerilekuak itxita egongo dira larunbatean, hilak 26, goizeko 9etatik 11ak arte gutxienez, Gipuzkoako Federazioak igeriketa txapelketa antolatu du eta. Egun berean, Olaizaga Kiroldegiko igeriketa eskolako zenbait ikasle Bergaran izango dira, bertako igerilekuan jokaturako den txapelketan parte hartzeko.



Agustin Garagarza:

### "Arrantzale onak jardun egin behar du"

■ **Arrantza denboraldia hasi berri da. Zer espektatiba dituzue?** - Juan zan sapatuan, hilak 19, hasi zan eta amaitu uztailearen 31an amaituko da. Azken zazpi urteotan Sallobente itxita egon danez, arrain asko dagoz. Arrain asko aterako dira aurreneko egunetan, gero izutu egingo dira eta urak mugitu ahala arrainak ere mugitu egingo dira.

■ **Azken zazpi urteotan ez duzue ezer ere arrantzatu, beraz?** - Ez, duela 7 urte debekatu egin zen, jendeak edonola arrantzatzen zuelako eta erreka amurrainik gabe laga zuten. 88ko uholdeek ere kalte handia sortarazi zuten. Oso amurrain gutxi zegoen. Gaurregun dexente. Nik oraindik ez dut ezer arrantzatu, ea tokatzen zaidan!

■ **Zozketaz arrantzatzen duzue, ezta?** - "La Union"en asteartero zozketa egiten da eta egun bakoitzean gehienezko bost pertsonak arrantza dezake. Edonork har dezake parte. Paseak zozketatzen ditugu eta jende mordera etortzen da.

■ **Eta denak desiatzen tokatze-ko, ez?** - Honbre! Asko dagoelako. Arrantzatu eta gero, parte bat bete behar izaten da eta bertan harrapatutakoaren berri ematen da. Kantiatea, pisua, neurria...

■ **Sallobente erre-**



**kan, ba al dago debekaturiko zonarrik?** - Badago koto bat, duela hamar urte ere leku berean zegoena. Hor ez dago aldaketa handirik. Honetaz gain, badago "veda" edo debekaturako leku bat; San Lorentzotik 800 metrotara dagoen harrizko zubitxo bat, Garagartzara doana, eta hortik goruntza, sorlekuraino, itxita dago. Hori arrain haztegia da.

■ **Beraz, arrantza egiteko mugak daude.** - Bai, eta tainari dagokionean ere, mugak daude. Gutxienezko neurria 19 zmtakoa da eta harrapatutako arrainak handiago izan behar du. Txikiagoa harrapatuz gero, isunak jartzen dira.

■ **Zein da arrantzale onaren sekretua?** - Saiatu eta junaren junez lortzen da arrantzatzea. Arrantzale ona izateko asko jardun behar da.

■ **Noiztik zabilta arrantzuan?** -

Errekan 22 urte edo. Betidanik gustatu izan zait eta neguan itsasoa ibiltzen naiz.

■ **Zer esango zenieke erreka kutsatzen dutenei?** - Errekak guztionak direla eta zaindu egin behar direla.

• Adina: 38  
• Harrapatu duzun arrainik handiena? 9.150 gramoko lupina.  
• Arrantzale ala ehiztari? Ehiztari ohia naiz ni.  
• Arrainik goxoa? Urraburua edo "dorada".



## DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK  
ERREFORMAK  
ALTZARIAK  
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09



## ANCHUSTEGUI Sa

**ZERAMIKAK**

Erakusketa eta bulegoa:  
Antonio Arrillaga, 6-8  
behea  
83 Postakutxa  
Tel. 74 33 44 - 74 06 92  
Fax 74 37 11

Biltegia:  
Arregitorre, 10 - 14 behea  
Tel. 74 20 38 - 74 23 71  
**20870 - ELGOIBAR**  
Gipuzkoa




# Arrantzarako prest

**M**artxoaren 19an ireki zen arrantzarako aurtengo denboraldia. Zazpi urtez Sallobente erreka itxita egon ondoren herriko arrantzaleek uztailaren 31a arte amurrainak harrapatzeko aukera izango dute. Denboraldia ireki zen egunean, hilaren 19an hain zuzen, 50 bat lagun bildu ziren La Union arrantza eta ehiza elkartean zozketa bidezko sistemaren bidez ematen diren paseetariko bat eskuratzeko. Zozketa asteartero egingo da, arratsaldeko 7,30etan. Asteko egun guztietan arrantzatu ahal izango da astearteetan ezik. Egun bakoitzeko bost arrantzalari baino ez

zaio baimena emango eta gehienez, zortzi amurrain harrapatu ahal izango ditu arrantzale bakoitzak. La Union elkartekoek esan digute, amurrain asko dabilela eta denboraldia hasi denetik kilo erdiko amurrainak ere harrapatu dituztela.

Sallobente errekan zegoen kotoa kendu egin zen duela zazpi urte eta inongo erreparurik gabe arrantzatzearen ondorioz, amurrain kopurua izugarri jeitsi zen. 88ko uholdeen eraginez, erabat agortu zen erreka eta horregatik, arrantzua debekatzea erabaki zuen La Union elkarteak pasa den martxora arte, debekua kendu den arte, alegia.



AZKUE

## KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



**Ibai Gimnasioko** Maialen Mora, Zuriñe Polo, Esther Idiakez eta Maria Idiakez judoka gazteek, domina bana eskuratu zuten, lehen aldiz antolatutako nesken Deba Beheko judo txapelketan. Maialen Morak eta Zuriñe Polok, urrezko domina lortu zuten. Esther Idiakezek zilarrezko domina eta honen ahizpa Mariak, brontzezko domina.

### Sallobente elkarteak antolatutako Artazo

Memorialaren finaleko eskuz banakako saioan Oierrek 18 eta 15eko emaitzaz irabazi zion Agirrebeñari. Eskuz binakakoan Armazio eta Olazarra bikotea, Loyola eta Osoroi gailendu zitzaion 10 tantuko aldeaz. Partiduen ostean anaiarteko bazkaria egin zuten, guztira 50 bat lagun bildu zirelarik. Giroa animatzen Meabebasterretxea eta Ziarda bertsolariak eta Pablo soinujolea eta Txillarre panderojolea aritu ziren.



AZKUE



## Morkaiko Mendizale Elkartea bi mila bazkide lortzeko kanpaina burutzen ari da

Morkaiko Mendizale Elkartek bazkide berriak egiteko kanpaina hasi berri du. Asmoa 2000 bazkide lortzea da eta baita, Mendizale elkarteak aspalditik egiten zuen bazkide txartelaren ohitura berreskuratzea ere.

**G**auregun 1700 bazkide-tik gora dauzka Mendizale Elkartek eta Euskal Herrian bazkide gehien dituen elkarteetarikoa bat da. Bazkide berriak lortzeko egitasmoaren barruan, herriko bost dendaren laguntza lortu dute. Denda hauek Astigarraga kirolak, Muxi kirolak, Iriondo kirolak, Uzuri optika eta Ikus optika dira. Mendizale elkartea eta herriko bost denda hauen arteko akordioari esker, %10eko beherapena egingo zaio Morkaikoko bazkide orori mendiko materialea erostean.

Funtzionamendu egokia ziurtatzeko, bazkide bakoitzari "baz-



■ ■ Morkaikok antolatutako mendi irteera Morkaikoko puntara.

kide txartel" bana emango zaio; txartelak pertsonaren izen-abizenak izango ditu, gainera. Txartela apirilaren erdi aldetik aurrera etxeraino heleraziko zaio bazkideari, berau eskuratzeko beharrezkoa izango delarik kontu korrante zenbakia Morkaikora eramatea. Hala egin beharko dute bazkide berriek bai eta eskuz ordaintzen zutenek ere.

2000. bazkidearen kanpaina bukatzean, hau da, 2000. bazkidea lortzean, opari zozketa egingo da Morkaikoko bazkideen artean.

Bestetik, Morkaikoko zuzendaritzak gogorarazi nahi du mendizale federatu karnetak prest dardela jasotzeko. Gogoratu halaber, 50. urteurrena zela eta argitaratu zuten liburua salgai dagoela oraindik 1000 pezetatan.

## AGENDA

### FUTBOLA Mintxetan

<b>Larunbata 26</b>	<b>16,45:</b> Haundi - Arenas Getxo
<b>Igandea 27</b>	<b>10,00:</b> Eibar - Union Txiki (Kadeteak)
	<b>12,00:</b> Elgoibar - Alde zaharra (Neskak)
	<b>16,00:</b> Elgoibar - S. D. Eibar (kadeteak)
<b>Asteazkena 30</b>	<b>19,15:</b> Elgoibar - Lagun onak (2. erregionala)
<b>Osteguna 31</b>	<b>16,15:</b> Haundi - Amorebieta
<b>Larunbata 2</b>	<b>17,00:</b> Real Sociedad - Ajax Amsterdam (Jubenilak)

### ESKUBALOIA Kiroldegian

<b>Larunbata 26</b>	<b>16,00:</b> Elgoibar - Bidebieta (Kadeteak)
	<b>17,30:</b> Elgoibar - Tolosa (Jubenilak)

### ARETO FUTBOLA Kiroldegian

<b>Ostirala 25</b>	Elgoibar A.F.T. - Sidreria Araeta (1. maila)
	Elgoibar A.F.T. - Cibrian (2. maila)

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Elgoibar 3 - Aierru 2 (2. erregionala)
Elgoibar 3 - Martutene (Jubenilak)
Mungia 2 - Haundi 3
Arrasate 1 - Elgoibar 3
Martutene 5 - Elgoibar 2 (Infantilak)
Zumaiako 4 - Elgoibar 0 (Neskak)

### PILOTA ARTAZO MEMORIALA

Armazio•Olazarra 22 - Loiola•Osoro 12
Oier 18 - Agirrebeña 15

### FUTBOL ARETOA

Bar Ainhua - Elgoibar (anulatua) (1. maila)
Hogar extremeño 2 - Elgoibar 7 (2. maila)





# 2.000. BAZKIDEA

## MORKAIKO M.E.

eta

ASTIGARRAGA Kirolak, IRIONDO Kirolak, MUXI Kirolak,  
UZURI optika eta IKUS optikaren arteko akordioa.

**Bazkideak %10eko DESKONTUA** mendirako materialean



Egin zaitetz bazkide eta ekarri azpiko txartela MORKAIKOra. Errosario 17. ☎ 74 02 97



IZEN-ABIZENAK.....

ZUZENBIDEA..... TEL.....

JAIOTEGUNA.....

KUOTA:  Haurra 500 pta.  
 Nagusia 1.000 pta

**BEHARREZKOA!**

BANKUA.....KONTU ZENBAKIA.....



## Izpiritua aberasten otoitza eta elkar laguntzaren bidez

Elgoibarko Zenakulo taldea desegin egin bada ere talde bezala, berau osatzen zuten emakumeak taldearen filosofiaren ildo beretik jarraitzen dute lanean.

Garrantzitsuena ez da desagertu: taldearen izpiritua. Gaur egun, batzuk eliza astebukaerako lorez jazten dute eta beste batzuk, mezatan monitore lanak egiten dute.

**Z**enakulo taldea 1986. urte inguruan sortu zen Elgoibarren. Herriko zenbait emakume, donostiar batekin harremanetan jarri eta haren bidez beste Zenakulo talde batzuek ezagutu zituzten. Zortzi hilabetetan, haseran emakume bat eta gero hiru emakume, astero astero Donostiara joaten ibili ziren. Bertako Zenakuluko esperientziak jaso eta herrian sortu behar zuten taldekoen artean konpartitzen zituzten.

Zenakulo taldea Ita-

eta laguntza emateko. Taldean gehienez, zortzi lagun, emakumeak denak, bildu izan dira. Era guztietako arazoak eta bizitzako esperientziak bizi izan duten pertsonen osatutako taldea izan da Zenakulua, eta pertsonak senti ditzakeen hutsune horiek nolabait bete ahal izateko bide izan nahi zuen. Bileretan, errosarioa errezatu, misterioa ospatu eta bakoi-tzaren arazoak entzuten zituzten.

Horrela zazpi bat urtetan jardun ondoren, bileren dinamika ahul-



■ ■ Eliza lorez apaintzea da emakume hauen lana.

### Zenakulo taldea desagertu den arren, izpirituak hor dirau.

lian sortutako lagundia da eta Aita Piok sortu zuen. 1986. urtean talde bezala eratu zen Elgoibarren eta astero, asteleheneretan hain zuen, Santa Klarako komentuan biltzen ziren otoitz egin eta elkarren artean indarra

tzen joan zen eta parrokiara etorritako apaiz berriekin hitz egin ondoren, taldea disolbatzea erabaki zuten, parrokiak zituen beharretara egokitzeke. Taldeko bikidek, elizan monitore lanak egitea erabaki

zuten eta gainontzekoek, beste seik, elizan loreak jartzeko taldean sartu ziren. Loreen taldekoek ostiraletan edo larunbategan eliza lorez apaintzen dute. Lan hori, herriko loradenda bateko emakume baten zuzendaritzapean egiten dute. Honek gainontzekoei loreak nola jarri irakasten die eta bere lana borondatezkoa da. Parrokiak aurrekontu bat dauka lorentzat eta dirua murriztuta denez, Garizuman eta Gabonak aurretiko garaian ez dira jartzen.

Zenakulo taldea

desagertu den arren, izpirituak hor dirau. Edonork laguntza beharko balu edo bere arazoak norbaitekin konpartitzea nahiko balu, emakume hauengana jo dezake, beraiek besoak zabalik hartuko baitute.

### FITXA TEKNIKOA

**Sorrera urtea:** 1986

**Banaketa urtea:**  
1993

**Iharduera:**

Loreak jarri eta liturjian lagundu

**Kideak:** 8





## Zabale anaiak trikiti lehiaketan sarituak

Zabale anaia trikitalari ezagunak eta Elgoibarko trikiti eskola irakasle direnak Euskadi irratiairen Pieza Berrien Lehiaketako arin-arin sailean lehen saria irabazi dute. Azpeitiko kiroldegian joan den larunbatean, hilak 19, ospatutako lehiaketan Zabale anaiek jokoan zeuden lau sarrietatik bi eskuratu zituzten. Lehen saria arin-arin sailean piezarik onena izatearren eta porrusalda atalean bigarren saria. Alberdi "Zabale" anaiek ehun mila pezeta lehen sarietatik eta berrogeita hamar mila pezeta bigarren sarietatik eskuratu dituzte.

**Itxaropena abesbatzak** berpizkunde garaiko musika kontzertua eskaini zuen joan den ostiralean San Bartolome parrokian. Kontzertu haseran, Xabier Dominguezek Sacabuecha joaz, Juan Ramon Ullibarririk cornettoa eta Jose Luis Francesenak organoa, hiruzpalau pieza jo zituzten. Ondoren, Itxaropena abesbatzak Nerea Ugarte azpeitiarraren zuzendaritzapean bakarkako ekinaldia eskaini zuen eta, bukaeran, instrumentu joleak eta abesbatza batera aritu ziren.

## Juan Carlos Karrillo

debarraren margoen erakusketa datorren hilaren 3ra arte zabalik egongo da. Beraz, erakusketara urreratu ez denak oraindik badauka egiteko astia. 31 urteko pintatzaile honetaz "Gaugenismo goiztiarraren kasua" dela esaten du Rafa Castellano idazle ezagunak. Karrillok ezagunak zaizkion inguruak margotzen ditu; Kultur Etxean erakusgai dituen 35 koadroren artean Elgoibarko eta inguruko txoko asko ikus daitezke. Gogoratu erakusketaren ordutegia arratsaldeko 7etatik 9ak arte izango dela astegunetan, eta 12etatik 2etara jaiegunetan.



**CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak  
Obra komertzialak  
Bainu manparak*

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89

**CHINA TOWN**

Txinatar jatetxea

Udaberrian prezio  
merkeagoak eta gainera  
opari txinoak

far-Kale, 3. 70 21 55 EIBAR

**Andoni Tellabide S.L.**

**ITURGINTZA**

- Berogailuak
- Suteen aurkako instalakuntzak

Azpilgoeta 19.

75 50 62 MENDARO



## Petra-Ariadna proiektua Elgoibarren

Elgoibarko Makina Erreminta Institutoko zenbait ikaslek aurkeztu berri den makina berri baten diseinuan parte hartu dute. Ikasle hauek 92-93 ikasturtean muntaia ikasketak burutu zituzten. Ondoren, Petra -Ariadna proiektuan sartu ziren Boloniako Enaip institutoarekin, Shenk eta Leika enpresekin elkar lanean. Helburua, ikasketak proiektu ezberdinak eginez osatzea da. Kasu konkretu honetan, (Ariadana proiektua) osagarri elektronikoak berreskuratzeko sistema bat sortu nahi zen, gero hauek birziklatu ahal izateko. Makina Alemania eta Italian aurkeztu ondoren, IMHn egongo da apirila bukaera arte. Erakusketa bukatzen den egunerako hitzaldi bat antolatu dute, bertan Alemaniako ordezkariak izango direlarik.

**P**arte hartu duten ikasleen artean bi elgoibartar ditugu, Aitor Rementeria eta Roberto Garcia. Beraiekin hitzegin dugu.

### - Noren ideia izan zen?

- Eskolan pre-moduloa ikasten ari ginenoi ideia eta PETRA proiektua aurkeztu ziguten, bide batez, ea prest nortzuk geunden galdetuz.

### - Aukeraketa nola izan zen?

- Irakasleek beraiek eginiko balorazioak eta notak kontuan harturik, gela guztitik hainbat aukeratu zituzten.


### - Nortzuk hartu zenuen parte?

- Diseinua gela guztiaren artean egin genuen hemen, Elgoibarren. Gero, Alemaniara sei baino ez ginen joan: Iñaki Elosua, Iñaki Larreina, Gotzon Gal-

parsoro, Jon Fernandez, Roberto Garcia eta Aitor Rementeria. Donostian Injenieritza Tekniko Industrialak ikasten zegoen ikasle batek ere hartu zuen parte, Julen Iriartek. Bera izan zen gure lana bideratu eta zuzendu zuena, gero karrera amaierako proiektu bezela ere aurkeztu zuen.

### - Nola koordinatu zenuten lana denen artean?

- Hiru eskolek hartu dugu parte: Italiako bat, Alemaniako beste bat eta, azkenik, guk geuk, Elgoibarko IMH-kook. Lana hiruren artean banatu genuen eta guri garraio linea egitea toka-



■ ■ Aitor eta Roberto makina berriarekin.

tu zitzaigun. Elgoibarren diseinatu ondoren, abenduan Frankfurt-era joan ginen, Alemaniara. Bertan, denok elkartu ginen, 30 gutzira.

### - Nola moldatu zineten gainon-tzeko ikaslee-kin?

- Oso ondo. Lehenengo egunean pote batzuk hartzera joan ginen denok batera, 30 pertsona gutzira. Elkar ulertzeko ez genuen arazorik izan, normalean ingelesez aritu ginen eta baze-

goen bat alemaniera ere hitzegiten zekiena.

### - Non bizi izan zineten?

- Alemaniarren etxean egiten genuen lo.

### - Eta bukatzeko, zer iruditu zaizue esperientzia hau?

- Orokorrean ondo egon da. Dena dela, ez genuen uste horrenbesteko lana izango zenik. Gainera, Frankfurt-era joan ginenean azterketa garaia zen eta irakasle batzuk ez zizkiguten fetxak alda-tzerik nahi izan, ikasle oso gutxi ginelako. Are gehiago, irakasle batek ez zigun azterketarik egin eta guztioi suspenditu zigun.

“  
Esperientzia bezala ondo egon da baina ez genuen uste horrenbesteko lana izango zenik  
”

IMHko ikasleak



## Etxebizitzak

ETXE BAT DAUKAT ALOKATZEKO. Altzariak dauzka. Pedro Migel Urruzuno Kanean.  
☎ 74 08 09 (3,30-7,30)

PISU BAT DAUKAT ALOKATZEKO San Roken.  
☎ 74 00 37

BUHARDILA BAT ALOKATZEA nahi dut. Berdin zait Elgoibar, Mendarola Alzolan izan.  
☎ 19 29 31

PISU BAT SALGAI dut San Frantzisko kalean 37-4. pisua.  
☎ 74 34 03 - 74 09 56

ETXE BAT EROSIko nuke DEBAn. Deitu eguerdian 13,30-14,30. Gauetz 19,30etatik aurrera.  
☎ 74 04 59

ETXE BAT SALGAI daukat SANTA KLARA 24an.  
☎ 74 40 52  
(Ofizina orduetan)

BASERRI BAT HARTUKo genuke  
☎ 76 62 64 Imanol

PISU BAT SALGAI. UBITARTE 11. zenbakian.  
☎ 74 12 07 Inaki - Mertxe

## Bestelakoak

Aterki bat galdu dut.  
☎ 74 09 69 Kristina

Karitasek LO EGITEKO ZAKU BAT BEHAR du.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57

Karitasek ERROPAK GORDETZEKO ARMAIRU BAT BAT BEHAR du.  
☎ 74 15 09 / 74 12 57

## Lana

KLASE PARTIKULARRAKematen ditut euskeraz eta erderaz. OHO edo BUPen.  
☎ 74 28 53 Alazne

Aizu etxeokandrea!, PERFUMERIA APAINKETA ETA KOSMETIKAn ari den frantziar multinazional batek EMAKUMEZKOAK BEHAR DITU. Slamenta zuzena. Diru etorri oso ona. Muestrario bikaina publizitatez lagundua. Aukera ederra zuretzat. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera.  
☎ (948) 51 05 06

31 urteko neska bat naiz eta etxeok lanak, umeak zaindu, garbiketa lanak eta antzerako lanak egiteko prest nago.  
☎ 17 17 40.

EDOZEIN TESTU moeta ORDENAGAILUZ pasatzen da. Grafikoak ezartzeko aukera. Deitzeko orduak: 14:00-16:00 eta 20:00-22:00  
☎ 74 22 77 Iratxe

Kontabilitate matematika, nominak eta seguritate soziala, administraritzako praktikak eta kosteetako kontabilitate KLASEAK EMATEN dira edozein mailatan. Esperientzia zabala.  
☎ 74 21 65 Javi

Hiru neska gara eta astebukaeretan UMEAK ZAINTZEKO PREST gaude.  
☎ 74 05 36/74 08 46  
(Gauetz)

## Salerosketak

Lehenengo jaunartzeko HABITO BAT SALTZEKO EDO LAGATZEKO daukat.  
☎ 74 27 76 (Tere)

FIESTA XR2-i SALGAI SS-AG. 40.000 km. Gutxi ibilia. Extra guztiak. Prezio egokia.  
☎ 74 33 51

GARAJE BAT SALTZEN da. Santa Ana 46. Arraia duna. 1.600.000  
☎ 74 11 30 Rosa

ADI!! RENAULT 19 CHAMADE 16V. SS AK BAT SALTZEN dut. Prezio oso ona. BIKAINA. (Bazkal eta afal orduetan deitu)  
☎ 74 23 64

ARTZAI TXAKURRAK SALGAI ditut. Bi hilabete dituzte.  
☎ 74 33 76 (Ainhoa)

Trikitixa jotzeko SOINU TXIKI BAT daukat saltzeko.  
☎ 74 11 29  
(Ofizina orduetan)

GITARRA ELEKTRIKO BAT SALGAI. Fender Stratocaster imitazioa eta 50 watioko Peavey amplifikadorearekin. (Arratsalde ofizina orduetan)  
☎ 74 02 36

ARROPA SEKADORA - ZENTRIFUGADORA bat SALTZEN dut. Estrenatu gabe. 40.000 pta balio zuena 18.000 ptan.  
☎ 74 19 81 (Ana Mari)

San Antolin auzoan LOKAL BAT ALOKATZEKO DAUKAT. Taberna ondoan.  
☎ 74 17 95

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala.756264  
Drogomenpekotasun Z..741008  
Odol Emailak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....742158  
Kultura Zerbitzua.....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udalzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia.....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Polikiroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia .....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Institutua .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....11 85 05  
74 22 67  
El Corro Español.....74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57



## 25 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Tina" USA 1993

Zuzendaria: B.Gibson

Aktoreak: A. Basset, L. Fishburne.

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 26 LARUNBATA

12,00 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,00 ANTZERKIA

"Pernando bizirik hago

oraindio"Goaz taldea

✓ Mendaroko Azpilgoetako elizan.

## 27 IGANDEA

10,00 HERRI KIROLAK

✓ Erretxindin

19,30-22,15 ZINEA

"Tina" USA 1993

## 28 ASTELEHENA

22,15 ANDRAIZEREN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,15 ZINEA

"Tina" USA 1993

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 31 OSTEGUNA

19,30-22,15 ZINEA

"Un mundo perfecto"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 1 OSTIRALA

19,30-22,15 ZINEA

"Un mundo perfecto"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 3 IGANDEA

19,30-22,15 ZINEA

"Un mundo perfecto"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 4 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Un mundo perfecto"

✓ Udaletxeko Biltzar aretoan

Antolatzailea: Ongarri zine kluba.

## 8 OSTIRALA

19,00 MARGO ERAKUSKETA

Pello Ezkurraren margoak

✓ Kultur Etxean

Hilaren 24a arte.

## txandak

### FARMAZIAK:

26, larunbata: Bidasolo

27, igandea: Bidasolo

28, astelehena: Yudego

29, asteartea: Yudego

30, asteazkena: Yudego

31, osteguna: Ormazabal

1, ostirala: Ormazabal

2, larunbata: Ormazabal

3, igandea: Ormazabal

4, astelehena: Ormazabal

5, asteartea: Etxeberria

6, asteazkena: Etxeberria

7, osteguna: Etxeberria

8, ostirala: Etxeberria

### OKINDEGIA:

27, igandea: ZABALETA

31, osteguna: EIZAGIRRE

1, ostirala: FOTERO

3, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

4, igandea: ZABALETA

## ZINEA

### Tina

Tina Turner rock munduko izarririk disdiratsuen da.

Pelikula hau Tinaren bizitzako fase ezberdinen erretratua da.

Bere bizitza musikala eta bere senarra Ike-rekin bizi izandako harreman sentimentala azaltzen du batez ere. Tinak jasandako borrokak, kolpeak, zeloak eta umilazioak eta, gero, musika munduan Tinak izandako arrakasta erakusten du abeslari ezagun honen bizimodua ederki azaltzen duen pelikulak.

## ZINEA

## ZINEA

### Un mundo perfecto

B. Haynes-ek (Kevin Costner) gartzelatik ihes egiten du.

Ihesaldian haur bat bahitzen du ihesaldiaren arrakasta

ziurtatzeko. Bien artean aita-

seme arteko harremana sortuko da. Haynes-i Texas-eko polizia

gogor batek atzetik jarratzen dio, R. Garnett -ek (C. Easwood)

kriminologa gazte bat laguntzaile duarik. Poliziak ihes egin

duenaren iraganeko sekretu garrantzitsu bat ezagutzen du.

## ZINEA





# ISTRIPU ASEGURUA

## HILEAPINTZAILEAK, IRAKASLEAK, DELINEANTEAK,...

Istripu heriotza .....	3.000.000
Elbarritasun osoa.....	35.000.000
Gaisotasun baja .....	3.000
Isripu baja.....	3.000

**URTEAN .....35,404**  
aldakorra

## ELEKTRIZISTAK, MEKANIKOAK, ITURGINAK, PINTOREAK, IGELTSERO,...

Istripu heriotza .....	3.000.000
Elbarritasun osoa.....	22.500.000
Gaisotasun baja .....	3.000
Isripu baja.....	3.000

**URTEAN .....61,330**  
aldakorra

Eskatu norberaren kasu partikularra **BILBAO** Asegu etxean.

San Frantzisko 42, behea. - Tel.:74 28 64 - Faxa: 74 39 80 - ELGOIBAR

# ostarku



**ESKA EZAZU ORDUA  
ZURE JAUNARTZE  
ARGAZKIETARAKO.**

**Bizitza guztirako oroigarria  
izango duzu.**

**Santa Ana, 5 - Tel. 74 06 46 - ELGOIBAR**



# SUKALDE ETA ALTZARI ERAKUSKETA IKUSGARRIA

Zatoz Itziar gainera merezi du eta!



Larunbat arratsaldetan  
**IREKITA**

➤ Aukera zabala egongela,  
logela eta tresilloetan.  
Klasikoak, modernoak,  
errustikoak eta jubenilak.

➤ Hiru solairutako  
3.000 m<sup>2</sup>-ko erakusketa.



**ENDANETA**

**ALTZARIAK**

Itziar gaina - Tel. 19 91 00 - DEBA



# PAGOAGA S.A.

## Iturgintza

- ITURGINTZA ETA BEROGAILUAK
- IGELTSERITZA LANAK OROKORREAN



**GAS INSTALATZAILEA,  
IG4 baimenarekin.**

**GAS NATURALA ETA PROPANOA**

☎ 74 02 79 - 74 05 12

San Antolin Kalea 13. ELGOIBAR